

JARDUERAK:

Lehengaiak lortzerakoan, alde batetik, multinazionalen kasuan, gizarte ardura korporatiboa (promozioa) egingo zaiela adieraziko diegu. Bestalde, negozio txikiei dagokienez; herrietako denda txikiei beraien kolaborazioa sarituko da App jarritz. Udaletxeen kasuan, kontenedoreak guk kudeatuko ditugu beraz, errekonozimendua ezarriko dugu gure App. Eta azkenik, indibiduen kasuan, Ondoren puntuak jasotzeko eta jostailuak merkeago erosteko aukera edukiko dute.

APP-a garatzerako orduan, hainbat jarduera burutuko ditugu. Hasteko, plataforma gestioa ondo egin behar ditugu, eta horretarako, App diseinatu behar dugu eta zehaztu zer jarriko dugun. Jarraituz, etengabeko mantenuari dagokionez; denbora osoan bideo berriak igoko ditugu, zehazki, astean behin bideo bat igoko dugu etxean sortu daitezkeen jostailu errazen ingurukoak. Horrez gain, jostailu berriak asmatzen baditugu hauen inguruko informazioa ere bermatuko diegu bezeroei.

Ondoren, **plataforma promozionatuko** dugu. Gure plataforma promozionatzeko, sare sozialak eta influentserrak erabiltzea erabaki dugu. Horrela, adin ezberdineko pertsonak ikusteko eta interesa duten guztiek aplikazioa edukitzeko aukera izango dute. Beraz, gure aplikazioa Play Storen eta App Storen deskargatu ahal izango dute.

Bestalde, gure enpresa ezagutarazteko edota **bezeroak lortzeko**, bai familiekin, bai haur eskolekin, komertzio txikiekin, multinazionalekin eta baita ospitaleekin arituko gara elkar lanean. Familietara iritsi ahal izateko, haur eskola ezberdinetara gure enpresari buruzko hitzaldiak egingo ditugu, gu aurrez aurre ezagutu eta dudak galdetu ahal izateko. Hortaz gain, lehen aipatu dugun bezala, sare sozialak erabiliko ditugu, hala nola, facebook-a, instagram-a, TikTok-a...

Haur eskoletan gure jostailuak haur eskoletan txertatzeko, hauetara joango gara gure produktuak aurkezteko, jostailuak dituzten alderdi pedagogikoetan oinarrituz. Jarraituz, ospitaleekin harremantzeko, bertan ospitalizatuta dauden haurrekin tailer ezberdinak egitea eta haiei erakustea objektu desberdinak sortzen pentsatu dugu, horrela, haien egonaldia atseginagoa egitea izango dugu helburu, gure produktuak proportzionatzeaz gain.

Komertzio txikien kasuan, herrietan aurki daitezkeen denda txikien kolaborazioa bilatuko dugu, eta horretarako, beraien arduradunarekin hitz egingo dugu gure ideia eta produktuak erakusteko. Azkenik, multinazionalekin, ToysRus eta Juguettos bezalako multinazionalekin kolaboratzea erabaki dugu. Horretarako, beraien arduradunarekin hitz egingo dugu gure ideia eta produktuak erakutsiko dizkiegu.

Ekoizpenari erreparatuz, langileak (EMAUS) kontratatuko ditugu, eta ondoren, formakuntza txiki bat jasoko dute, jostailuak izan behar duten helburu pedagogikoei buruz. Produktuen diseinuari dagokionez, hezitzaileok, hau da, sozioek burutuko ditugu. Eta jostailuak banatzerako orduan, azpikontrataturako garraioa izango dugu.

Bukatzeko, **langileetako** bakoitzak izango duen **jarduera** zehaztuko dugu: Gure kasuan, hezitzaile profesionalak izango garen aldetik, kontratatutako langileei formakuntza eskainiko diegu, jostailu pedagogikoak egiteko. Horrez gain, telefono zein App zerbitzuak kudeatuko ditugu, baita jostailuen diseinuaz eta bideoak sortzeaz arduratuko gara.